

# Oiartzun

OIARTZUNGO TXOKOAK



Egileak:

Hegamala

LH5



Ikastolen Elkartea

# Oiartzun gozatu

TXIKI



## Aurkezpena

Kaixo, lagunak! Txiki naiz. Eta jakin-mina dut, irrikitan nago gauza berriak jakiteko. Ausarta ere banaiz, beti aurrera egiten dut. Nahi al duzue egun zoragarri bat pasatu nire herriko altxorak ezagutzuz?

- 
- ZATOZ ETA GOZATU OIARTZUNEN!
- 
- Â;VEN Y DISFRUTA DE UNA EXPERIENCIA INOLVIDABLE EN OIARTZUN! □
- HAVE FUN OIARTZUN!

Â

## Presentación

Â;Hola, amigos! Soy Txiki. Siempre quiero aprender cosas nuevas y tengo mucho interés por aprender. También soy muy valiente. Â¿Os gustaría disfrutar de un maravilloso día descubriendo los tesoros que tiene mi pueblo?

# Oiartzun begirada batean

## Kokapena


Gure herria Gipuzkoako ipar aldean kokatuta dago. Oiartzunek Irun, Lezo, Errenteria, Arano, Goizueta eta Lesaka ditu mugakide.

## Erliebe-elementuak

Oiartzun izen bereko haranean dago. Herriko ibaia ere Oiartzun ibaia da. Horretaz gain, mendi asko daude, batzuk hauek dira: Aiako Harria, Bianditz, Urkabe eta abar.

## Bestelako informazioa

Herrian bertan jaiotakoa dugu Xabier Lete poeta "Izarren hautsa" eta beste hainbat kanta ospetsuren egilea. Bertakoak dira ere Martin anai arrebak, Alaia Martin eta Jon, bertsolari benetan trebea. Eskupilotan ere Ander Imaz Lasorekin finaletan ibiliak izugarritzko bikotea dugu. Futbolariak ere baditugu, adibidez Gaizka Saizar profesionaletan ibilia, oso ona benetan.



# ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

## SORONDO BASERRIA



Sorondo inguru naturalean izen bera duen baserri bat dago. Karrikako auzoaren goialdean dago. Sorondo baserria Antxon Aguirrek egin zuen. baserria haundia eta txukuna da. Sorondo ingurua oso polita da, basoz inguratuta, eta baserriaren helbidea Sorondo bidea 18 da.

# ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

## PIKOKETA



Pikoketa Aiako Harria parke naturalaren barneko mendi ingurunea da. Euskal Herriko iparraldean dago. Nola ez, ipar-isurialdean.

Klima hezea du, nahiko euri egiten du. Habitat mota lehorrekoa da, flora, lore eta zuhaitz ugari ditu adibidez: pagoa, pinua, goroldioa, gorostia, haritza, sasiak... Animaliak ere gutxi ez daude. Gueuz joaten bazara kontuz ibili basurdeak edo azeriak ibiltzen baitira. Baina egunez, hegazti ugari, sisareak, insektuak eta abar luzea ikusi daitezke. Joaten bazara eraman jan eta edateko zerbait eta mendiko botak.

# ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

## ARKALEKO BUNKERRAK



Arkaleko harkaitzek mendi-gandor moduko bat osatzen dute "hego-ekialdetik ipar-mendebaldera doan arku bat marraztuko balu bezala". Irundik Oiartzunera joateko irispidea itxiz. Beraz, Gipuzkoako gune estrategiko bat da. Goialdea 266 metroko kotan dago; hortik pendizean jaisten da iparraldera eta hegoaldera, aldapa gutxiagoko eremuak aurkitu arte, 230 metroko kotaren inguruan; hortik bailarara bide leunagoa dago. Haustura sakonak eta koskak dituzten harkaitzek osatzen dute katearen ardatza, eta hori, noski, defentsa natural nabarmena da. Bertan eraikita daude hainbat bunker.

# ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

## BELOAGA



Beloaga gaztelua Gurutze auzoan dagoen Erdi Aroko gaztelu militarra da.

Arkale Oiartzugo udalerrian dagoen mendia eta eremua da. Gailurra harkaitzek osatzen dute. Eskaladarako gune aproposa da. Inguruetan 1939-40 urteetan eraikitako Vallespín izeneko gotorlekua dago.

Esan izan dute Arkaleko harkaitzetan zegoen gaztelu hau Txingudi badia zelatatzeko talaia bat zela. Beste batzuek erromatarren garaian Arditurri meategien eta Oiassoko kaien arteko bidea zaintzeko zerbait gotortua eraiki zutela. Erdi Aroan, Nafarroako erregeek zeukaten Beloaga gaztelua Gaztelako Alfonsok VIII.ak 1200an eskuratu zuen arte, (Semenek idatzitako kronikan jasota).

# Zirkuituaren mapa



## Legenda

Norabidea



Erreferentzia-puntua



Abiapuntua



Interesguneak



Helmuga





# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren lehen urratsa



- Abiapuntutik Beloagara, oinez joan zaitezke.

### Deskribapena

Learreko malda goraka joan eta bidegorritik segi bidegorria amaitu arte. Ondoren, segi aurreraÂ karretera ondoko espaloitik.Â Toki Alai tabernara iristean, segi gorantz taberna ondotik, Beloagara iritsi arte.

# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren bigarren urratsa



- Beloagatik Arkaleko bunkerretara joateko, oinez beheraka joango zara.

### Deskribapena

Beloagatik pixka bat behera joan eta lehenego bidegurutzean eskubira hartu. Aurrera jarraitu bunkerreko atea aurkitu arte.

## Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



- Arkaleko bunkerretatik Pikoketara, oinez joango zara.

### Deskribapena

Gurutze hotelera joan eta haren parkineko bidetik segi gorantz. Gero jarraitu bidetik goraka Pikoketara iritsi arte. Bertan, taberna eta jatetxea ere badago.

# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren laugarren urratsa



- Pikoketatik Sorondora, oinez joan zaitezke.

### Deskribapena

Pikoketatik hegoalderantz abiatu zaituzte. Ergoien auzoko Tolare jatetxea pasa, eta ondoko bidegorritik jarraitu Altzibarko Ugarte errota aurkitu arte. Aurkitzen duzunean ezkerretara hartu, berriro bidegorriarekin topatu harte. Behin topatzean, joan zaituzte Karrika auzoraino eta, Karrikan zaudenean, atera zaituzte karraterara. Segi goruntz bide bazterretik batetik Sorondoraino iritsi harte.

## Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



- Sorondotik helmugara, oinez joango zara (helmuga eta abiapuntua berbera da).

### Deskribapena

Sorondotik atera eta jarraitu aurrera karrateratik iparalderuntz helmuga puntua aurkitu arte.

# Bisitariენტzako gomendioak

Ez bota zaborrik lurrera, bota zaborontzira.

Ez utzi txakurrei nahi duten tokian kaka egiten, arren.

Vete andando por la acera no por la carretera.

Recoge la basura si se te cae, por favor.

Take a good clothes to muve, please.

If you have a pet, pikc up the poo in a poo back.